


ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Urriak 4, 120. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



J. M. LOITI
Mankomunitateko
lehendakari
berria



Maritxu kajoian

eta besteak txikiteoan

Joseba




LORAMENDI
BIROLAK

Presta zaitez
negurako,
denetik daukagu.

Maiztaren 1a plaza. ARRASATE Tfnoa: 79 97 24

HITZALDIA



Ikasturte berria hasteko dela, dena konponduta unibertsitatean?

- Irakasle asoziatuen gatazka
- Konpontzeko bideak. Egungo egoera

Hizlaria: **Jose Ramon Etxebarria (EHUko irakaslea)**

Eguna: **urriak 9 (asteazkena)**

Ordua: **7ak**

Tokia: **Monterron**



AKTIBITATEAK (91-92)



Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak



Goizez: • Gimnasia

Bazkalostean: 3.30etatik aurrera

- Eskulan tailerra
- Puntu eta gakorratza
- Euskara
- Kultura orokorra
- Filosofia
- Sukaldaritza
- Tapiza eta makramea
- Jantzigintza
- Psikologi ikastaroa
- "Análisis transaccional" ikastaroa

Arratsez: 6.30etatik aurrera

- Buztingintza
- Eskulan tailerra
- Sukaldaritza
- Sexualitate ikastaroa
- Marrazki eta pintura
- "Análisis transaccional" ikastaroa
- Elikadura, kontsumoa eta osasuna
- "Tai-chi" gimnasia

Gazte eta nagusientzat

INFORMA ZAITEZ!!

Hasiera urriaren 7an

Santa Teresa, 12 ARRASATE

Tfnoa: 79 04 59 (Arratsaldeko 3.30etatik aurrera)

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Iñaki Mendiguren

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Iñaki Galdos

Publizitatea eta harpidetak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Juan Martin
Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,
Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza,
Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés,
Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA
taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea,
Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien
erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan
egiten da.

Zeruko bideetatik

Frankfurtetik Moskurako bidean ari naiz idazten lerro hauek. Arestian eguneko albisteak irakurtzeari utzi diot, hain zuzen ere, espainiar prentsarentzat lehen lerroko notizia diren gaietara errepasotxo bat emanda gero. Horiei buruz bederatzita mila metrora egin dezakedan hausnarketari egokitu diot txanda eta partikularki Aita Santuak espainiar gizartearen gainean adierazitako kritikek jaso dituzten erreazio desafortatuak ditut gogoan. Diodan, halaber, espainiar gizarteak zein frantziar edota beste edonongoak arreta berbera irabazten didatela. Tamalez Juan Pablo II.a ez omen da gai euskal eta espainiar kontzeptuak bereizteko. Gainera, euskal gizartearen hutsak ipar-mendebaldean itotzen ari diren akatsen antzerakoak dira. Eta horrek biziki arduratzen nau.

Nik ez dakit postmodernismoaren aroan goia jo dugun ala ez. Modernitateak krisia izugarria jasan duelarik, orain postsozialismoan bizi gara eta, pentsa liteke, postkapitalismoa ere iristear dagoela. Dean den, ezaugarriak ez dira horiek eta ekonomi laukiak oraindik ere lehengo lepotik darrak. Eta inork ez digu ukatuko — are gutxiago gure politiko poltroizaleok — gure gizartearen ongizateak ez duela koordinada berririk behar.

Pena ematen didate, kritikak katolikoaren erreferentziarik nabarmenarengandik heltzen direlako, jo eta

su gezi pozointsu bezain ganora-bakoen bitartez kontraerasotzen dutenek. Dena den, ez dut esan nahi, Erroma bertute hutsaren ispilu denik.

Erlijioek —era, garai eta taiu guztietakoek— gizakiaren barne-problematikari erantzun nahi izan diote. Psikologikoki, eta bai soziologikoki ere, pertsonaren askatasuna adierazi izan dute sarri. Alde horretatik, beste inondik begiratu nahi ez bada ere, erlijioek giza jarrerak arrazionaliza ditzakete eta gizonen arteko bakea ahalbidera lezakete... baldin eta erlijio horie oinarritzko arrazoiak demokratia aldarrikatuko balitz. Gaur egungo sasiainoek, ordea, ez dute gizonen berdintasunean sinesten. Dirua, boterea, aberaskeria... ditugu geure artean gehien baloratutako merituak. Asetezintasunak markatzen gaitu, gupidagabeki, gure diseinaturiko joko-arautegiaren barruan.

Erljioak jarrera ulertezin eta funtsgabe hori deuseztatzen lagun dezake; izan ere, erlijioaren muinak gizadiaren gainera egitasuna, justizia eta bakea ereiten bait ditu. Azaleko ezaugarriak —dogmak— diferente izan daitezkeen arren, etika eta jarrerari dagokionez elkarren ondoan joan bait daitezke.

Nagoen lekuan nagoelako edo, ez dakit gaurko hau ez ote zaidan altuegixe atera.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL

Begoña lurrindegia

Drogeria / Jostailuak

Opariak

Gipuzkoa Etorb., 33

Musakola Auzoa. Tfnoa: 79 03 73

comercial san juan

Garibal, 12

Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4

Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta oparidenda

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

IZAGIRRE
harategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde, 23-2. Ezk.
ARRASATE Tfnoa: 79 96 90

Tabernariei

Maritxu Kajoi eguna dator eta urtero bezala, dotore irteko jantziak prestatzen gabiltza. Lurrerainoko gonak, kapelak, eskularruak eta horrelakoak. Zazpitan irtengo gara eta herriko taberna guztiak edozein motatako edariak eskaintzeko prest egongo dira, baina denbora pasatzen den neurrian eta edariaren ondorioz komunera joateko gogoia etortzen bazaigu, aguantatu egin beharko dugu, zeren eta tabernetako komun gehienak lohi eta zikinak edo itxita egongo bait dira.

Mutilek arazo hau ondo konpon-tzen dute. Zer egin? Kalera irten eta edozein lekutxo ona da txisa egiteko. Neskek, ordea, hainbeste jantzirekin gainean ezin dugu horrela egin eta gau guztian sufritu behar.

Hurrengo egunean, zer gertatzen da? Herriko kaleek daukaten kiratsa-rekin biharamuna segituan pasatzen zaizula. Eta jendea kexatu egiten da, noski. Guzti honek duen erremedioa ez da hain zaila: tabernetako komunak ez itxi, mesedez. Zerbitzu bat eskaintzen baduzue, bestea ere eskaini behar duzue, parekoa da eta.

A.S.

**Poster hau
erdiko
orrialdeetan**



Mirari asko eginagatik diruz nabil ozta -ozta eskapulaiko honek gehiago beharko du aurki kosta, hurrengo urtean berrogei duro aurpegi alaiez bota Bartzelonako olinpiadara joateko asmoz nago ta.

Maritxu Kajoi eguna dela eta, Arrasate Presseko irakurleei oparitxo bat egitea bururatu zaigu. Eta zein opari Juan Luis Goikoleak eta Iñigo Arregik egindako kartela baino hobea? Aldizkariaren erdikaldean aurkituko duzue hori, grapak kendu eta jarri ezazue etxeko hormaren batean, oroigarri polita izan daiteke eta.

Zer sentiarazten dizu udazkenak?




Leire Irazabalbeitia
(Ikaslea)

Ez dakit. Ez dut ezer be-
rezirik sentitzen. Udan hobeto
oporrak direlako, baina bes-
tela berdin.



Fozino Olmedo
(Jubilatua)

Gaixo antza. Tristurarik
eta, ez dut sentitzen, baina
udan hobeto egoten naiz.



Gorka Galdos
(Ikaslea)

Udazkena ez da batere
atsegina, baina eguraldiaga-
tik eta tristuragatik baino gehi-
giago, klaseak hasten dire-
lako.



Mari Carmen Dominguez
(Etxekoandrea)

Niri gustatzen zait udaz-
kena. Negurako prestatzeko
ondo etortzen da udazkena.
Neguak, bai, triste jartzen
nau.



ACEIG-FECEIko kidea
Arrasateko Hizkuntz Eskola

INGELESA FRANTSESA ALEMANA

Azken postu libreak


Kurtso-hasiera: urriak 1, asteartea

Araba Etorb. 4 Arrasate Tfnoa: 79 01 32

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

Kiromasaia terapeutikoko ikastaroa



- Kiroletakoa
 - Terapeutikoa
 - Bizkarrezurrekoa
 - Erreflexologia
- Ordutegi malgua. 2 egun astean.
Diploma profesionala

Izenematea: General Loma Plaza, 4-3. GASTEIZ Tfnoa: (945) 23 33 99

Memesa
79 42 22

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Lariakdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZAK

Arrasate	79 71 99
----------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
----------------------------------------------------------	----------



4

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai: "Todo por la pasta" (10.30)
- "Gazteen grinak" argazki lehiaketaren sari banaketa, arratsaldeko 7etan.
- Maritxu Kajoi: Arratsaldeko 8etan, Maritxuri omenaldia. Gaueko 11.30etan "Maixa eta Itziar" trikitilariak Seberon. Gaueko 12etan, herriko plazan, dantzaldia "Super Tros" taldearekin. Goizaldeko 2etan "Maritxu Kaba"ren aurkezpena eta goizeko 5etan Monterroneko parkean sokamuturra.
- Goardiako farmaziak: Egunez: Azkoaga, Ferrerías. Gaez: Camacho, Bergara.

5

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai: "Buscando justicia" (5-7.30-10)

Kirol Agenda

Futbola

• • •

- Mondra-Santutxu, Atxabalpen larunbatean, arratsaldeko 4.30etan.

Pilota

• • •

- Arrasateko-Aloña Mendi, Iturripen larunbatean, goizeko 11etan.

6

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "Buscando justicia" (7-10)
- Kilometroak 91 Bergaran.
- Goardiako farmaziak: Egunez: Corcuera, Musakola. Gaez: Puy, Bergara.

7

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "Buscando justicia" (7-9.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Irizar, Erguin. Gaez: Guallar, Bergara.

8

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai: "Buscando justicia" (7-9.30)

- Hitzaldi praktikoa, "Izozketa eta desizozketa", arratsaldeko 3etan AED elkartean.
- Musikaren inguruan dabilzaren batzarra, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Egunez: Amezua, Santa-maina. Gaez: Estella, Bergara.

9

ASTEAZKENA

• • •

- Hitzaldia, "Ikasturte berria hasteko dela, dena konponduta unibertsitatean?", arratsaldeko 7etan Monterronen.
- Goardiako farmazia: Egunez: Aurora Ruiz, Maala. Gaez: Mozos, Bergara.

10

OSTEGUNA

• • •

- Zinea: Amaia: "Subway" (8.30)
- Goardiako farmazia: Egunez: Morales, San Andres.

Eskubaloia

• • •

- Arrasate Kirolak-Altzatarrak, Iturripen igandean, 12.30etan.

Herri-Kirolak


• • •

- Oñatin, larunbatean arratsaldeko 5.30etan.

Deialdiak

• Autobusak Kilometroak 91ra

Datorren iganderako, hilak 6, Pesa garraio-enpresak zerbitzu bereziak jarri ditu Bergarara joan nahi duten guztientzat. Zerbitzu berezi horiek honako hauek dira: Arrasatetik Bergarara, goizeko 9.15, 11.15 eta 13.15etan; Bergaratik Arrasatera, arratsaldeko 5, 7 eta 9etan. Bidaiaren prezioa ohizko txartelarena izango da.




• Loiolara erromesaldia

Datorren urriaren 13rako, Arrasateko Artzapezgoko Gaixoen Zerbitzuak Loilarako erromesaldia antolatu du. Itteera, goizeko hamarretan izango da, autobusa San Andres, Garibai eta Musakolan geldituko delarik. Erromesek auzoetako elizetan eman dezakete izena. Bidaiaren prezioa, Kiruri jate-txean egingo den bazkaria barne, 2.000 pezetakoa da.

Ikastaroak

• Euskal Dantzak

Gazte Zerbitzuak, Lore Gazteak taldearekin batera, Euskal Dantza Ikastaroa antolatu du. Ikastarolari datorren urriaren 11an emango zaio hasiera, gabonetan bukatzeko. Eskolak ostiraletan izango dira, arratsaldeko 7etatik 8.30etara. Denbora horretan, Mutil Dantza, Larrain Dantza, Arin-arin eta Fandangoa irakatsiko dira. Ikastaroa ha-



ERAKUSKETA

Nazioarteko eskultura Monterronen

Datorren igandera arte, hilak 13, Monterronen, etxe osoan, ikusgai izango da Besaidek Euskal Mendizale Federakundearen laguntzaz antolatutako Nazioarteko Eskultura Erakusketa, joan den asteburuan inauguratu zena alegia.

Erakusketa honetan Italia, Luxenburgo, Belgika, Japonia, Estatu Batuak, Danimarka, Frantzia, Argentina, Espainia eta Euskal Herriko artistek hartzen dute parte. Arrasateko bi eskulturgileek ere, obra bana daukate erakusgai, alde batetik Begoña Uriartek eta bestetik Kepa Landaluzek. Guztira, hogeitahemeretzi lan.

Erakusketa hau benetan ikusgarria gertatzen da, erakustokia Monterron etxe osoa izateaz gain, ikus daitezkeen lanak oso desberdinak direlako. Erakusketaren ordutegia: lanegunetan arratsaldeko 6etatik 8etara; larunbat eta jaiegunetan, 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

malau urtetik aurrerako gazteei zuzentzen zaie, eta izena emateko Gazteentzako Informazio-Bulegotik pasatzea besterik ez da behar. Aukera aparta orain artean dantza egiten ikasi ez dutenentzat.


• Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentrua

Famili eta Gizarte-Heziketarako Zentruak antolatutak, urriaren zazpitik aurrera, gazte eta nagusientzat ikastaro desberdinak antolatu dira. Goizez, gimnasia egiteko aukera izango da; arratsaldez berriz, euskara, filosofia, sukaldaritza, buztin-gintza, mazzaketa... eta beste

gai asko jorratuko dira. Ikastaroei urriaren 7an emango zaie hasiera. Informazio gehiago nahi duenak, Santa Teresa kaleko hamabigarren zenbakiko aretora jo dezake, edo bestela 79 04 59 telefono-zenbakira dei egin.

• Sukaldaritza

Mari Tere Altuna sukaldariak, urriaren 15etik abendua-



ren 10era arte, sukaldaritza ikastaroa eskainiko du AED elkartean. Ikastaro honetan parte hartu nahi duenak AEDn bertan eman beharko du izena, arratsaldeko 6etatik 9etara. Ikastaroan zehar prestatuko diren jakiak bertan zozketatuko dira. Matrikula egiteko 1000 PTA ordaindu behar dira.

• Sexualitatea

Urriaren 10ean hasita, AEDk sexualitate-ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Amaia Vazquezek emango du eta matrikula mugatua izango da.

• Yoga

Arrasateko Yoga elkarteak antolatutak, datorren urriaren 7tik aurrera, zenbait ikastarori hasiera emango zaio. Ikastaroak goiz eta arratsaldez izango dira,



adin guztietako jendeari zuzendua eta maila guztietan. Informazioa eta izena emateko, Arrasateko Yoga Elkartera joan daiteke edo 79 35 76 Tfno.ra deitu.

Hitzaldiak

• Ikasturtea unibertsitatean

Ikasturte berria hasteko da-goela eta, Jose Ramon Etxebarria Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak "Dena konponduta unibertsitatean?" izenburupean hitzaldia eskainiko du Monterronen, asteazkenean arratsaldeko 7etan. Irakasle asoziatuen gatazka eta egungo egoera konpontzeko bideak zeintzuk diren azaltzen saiatuko da J. R. Etxebarria.

“.....
“Mendia, monumenturik onena.

Ez zait gustatzen Besaideko monumentu berria. Errespetatu egin ohi ditut geure mendietan ditugun sinbolo ugariak, eta garrantzizko kultur datuak ere ikusi ohi ditut horietako batzuetan. Ulertzen dut gure arbasoek ehorzketako monumentu estrategikoak ipini beharra beren bizitza- eta erritu-espazioan, eta onartzen dut gizartearentzat ezinbesteko diren elementu arrotzak natur ingurunean sartzea.

Historia interesgarri eta tradizio garrantzitsuko monumentua zegoen Besaiden. Topaleku baliotsua zen Besaide eta horrela jarraitzea espero dut.

Baina Besaidek ez zuen beste harririk behar, inguruko Anboto eta Udalaitz izan ezik, hauek bait dira euskal paisaiaren benetako sinboloak; ez zuen beste monumenturik behar birbaloratzeko, ezta beste omenaldirik ere, aurrekoa deskreditatzen duela ematen bait du. Eta ez dut ezer horren egilearen, Ogata-ren, kontra, ezta berak errepresentatu duenaren aurka ere.

Penagarria da gizakiok hain gogoko izatea geure bizialdiaren aztarnak uztea eta gauza materialetan oinarrituriko oroitzapenak.

“Paisaiaren elementuen artean, mendia da monumenturik onena”.

(Santiago Yaniz. DEIA 1991-IX-27)

“.....
“Gasteizen, Kemen, 420 langile eta 4.000 milioi inguruko fakturazioarekin, eta Ofita, 150 langile eta 2.200 milioikin, eta Arrasaten Roneo, 290 langile eta 3.500 milioi fakturatuta, merkatu nazionalaren buru dira, Madrileko AF-Steelcase Strafor enpresaren ondoren, hau altzari metalikoen sektoreko liderra bait da 8.500 milioi pezetako fakturazioarekin”.

(El Mundo. 1991-X-11)



Nola joan da zatiketaren prozesua Arrasateko EEn?

Arrasaten EEren zatiketa, Euskadi osoan bizi izan den moduan bizi izan da. Euskal Gobernuaren zatiketa historikoa izan da, lehenengo aldiz hiru alderdi nazionalisteen arte-

ko gobernu-koalizioa egin ahal izan zelako eta handik aste betera bertan behera utzi zelako. Arrasateko kide gehienon eritziz politikak bere etika, helburu eta programak izan behar ditu. Kasu honetan, programa bertan behera utzi da. Gure ustez, betidanik, EEren helburua politikan etika bat izatea izan da, horregatik gehienon jarrera Añamenditarren jokaerarekin bat egitea izan da. Politika ez da bakarrik postuak eskuratu eta ohorea lortzeko, baizik lana egin eta kritikei erantzuteko.

Zatiketa hor dago, eta behar bada EEren azken egunen aurrean gaude. Horren aurrean, gure helburua EEk izan duen patrimonio historiko eta politikoa berreskuratzea izango litzateke, beste proiektu berri baten bitartez berriz ere euskal gizarteari eskaintzeko.

Arrasaten egin genuen bileran, EEren barruan dauden bi eritzien aldeko jarrerak azaldu ziren, baina Añamendik defendatzen duen proiektua irabazle atera zen. Portzentaia hitz eginez gero, Arrasaten %75a Añamendiren alde izango ginatke, eta gainontzekoak Berrikuntza Demokratikoaren aldekoak. Horregatik, ez ohizko mintegiaren aldekoak gara, proiektuari berriz ere balio-garritasuna emateko. Bailara, orokorrean, Añamendiren aldekoa dela uste dut, Bergara ezik.

Aitor Orobengoa,
 EEko zinegotzia.



**Hemen dugu
 udazken-negurako
 haurren moda**

NEREA

Erdiko kale, 28 ARRASATE Tfnoa: 79 13 43

Oñati

• Errosario jaiak

Aurreko San Migelen ondoren, Errosario jaiak dituzte aste honetan Oñatin. Ostiralean, urriak 4, bertso-jaialdia eta dantzaldia izango dira. Larunbatean, Herri Eguna izango da. Ganadu, barazki, gazta eta marmitako lehiaketak, sagardo-dastaketa, eta beste hainbat erakusketa egongo dira goizean.

Bazkari herrikoia izango da ondoren. Arratsaldean, herriko kuadrilen arteko herri kirolen lehiaketa, Salbea eta suzko zezena. Gauez, pilota partiduak eta Joseba Tapia eta bere taldeak eskainitako erromeria. Egun osoan, trikitilari, soinu-jole, txalapartari, bertsolari, txistulari eta txarangek alaituko dute Oñatiko herria.

Errosario Igandean, guztiz ekintza ezberdinak izango dira, hala nola, Meza, bandaren kontzertua eta Suzko-Gurpilak.

Astelehenean, mozorro-turik irtengo dira oñatiar gehienak.



Aretxabaleta

• Independentziaren aldeko mozioak onartu

Pasa den astean independentziaren aldeko bi mozio onartu zituen Aretxabaletako udalak EA eta HB ren baiezkotzekin eta gainerako alderdien abstentzioarekin. Hala ere, EAren mozioa ez zen bere osotasunean onartu, bortxakeriaren erabilpena salatzen zuen puntuari eta Eusko Legebiltzarrak 1990eko Otsailaren 15ean autodeterminazioaren alde onartutako adierazpenarekin bat egitearenari ez bait zien HBk baiezkotzekin eman. HBren mozioa, berriz, zegoenetan onartu zen. Mozio honen bigarren puntuan, Euskal Herriko independentziaren adierazpenekoan, PSOEk bere ohizko abstentzioaren ordez, ezezko botua eman zuen.

Pleno berean, EAk soldaduzkaren aurka aurkeztutako mozio bat ere onartu zen.

Elgeta

• Biztanle-kopurua behera

Elgetak duen biztanle kopurua beheraka doa, azken erroldak erakusten duenaren arabera. Herriak gaur egun dituen biztanleak 1.007 dira, iaz baino hamaika gutxiago. Biztanle-kopuru handiena, 1973an egon zen, 1.282 konkretuki, eta ordutik beheraka joan da kopuru hau. Jaitsiera handiena "Muebles El Modelo" enpresa itxi zenean gertatu zen.

Gaur egungo biztanleetatik, 509 gizonezkoak dira eta 496 emakumeak. Bestalde, herrian enpadronatutako 34 pertsona kanpoan bizi dira.

Azkenik, 383 etxebizitza daude herrian, hauetarik 89 hutsik.



BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean

Seo Gasteiz -en

Cercas bajas, 34 GASTEIZ



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora, 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

❑ Lan Kide Aurrezkia, eraginkor

Lan Kide Aurrezkia munduko ehun finantz elkarte eraginkorrenen artean dago, *The Banker* aldizkari britainiarak egindako rankingaren arabera. Ranking honetan, batzbesteko aktibo osoen gaineko etekin ratioak neurtu dira.

Munduko 1000 entitate garrantzitsuenen artean Euskal Herriko beste bost entitate ere badaude, BBV, BBK, CAN, GK eta Banco Guipuzcoano.

❑ Eskola-Kontseilurako ordezkariak

Asteleheneko Gobernu-Batzordean, Eskola-Kontseilurako ordezkariak izendatzeko proposamena egin zuen Hezkuntza-Batzordeak. Proposamen honen arabera, San Viator, Eskola Politekniko eta San Franzisko Xabier Ikastolako ordezkariak PNVk izango lituzke; Musakola eta Erguingo Herri-Eskoletakoak HBk; La Merced Ikastetxea eta Umezaintzakoak EAk; Institutuko eta San Andresgo Herri-Eskolakoa PSOEk; eta Ahizke eta Almenekoak EEk. Ordezkaritza-proposamen hau, urriaren 11ko plenoan eztabaidatuko da.



Kiroldegiaren inaugurazioa

Larunbatean, eguerdiko 12etan, inauguratuko da Iturripeko kiroldegia. Pilota partiduak, Zaldibarko futbito txapelketako partiduak eta Atletismo proba batzuk jokatu dira goizean zehar.

Txandaka

NAHIKOA DUGU

Aspaldi honetan, Gotzain eta Aita Santuaren eritzien aurrean Espainiako politikoa sozialista eta kazetari "progre" batzuen "zazpiki" jarrera ulertezina egiten zait.

Iaz, "Egiak aske egingo zaituzte" izeneko txostena atera zuten Gotzainek, eta asunak hanka

tartean baino hazgura eta erremin gehiago sortu zuen politikoa sozialisten artean. Aurten, zenbait elizbarruti kataluniareetako parroki aldizkaritxoetan beren herri eta nazioaren eskubideak defendatu dituzte. Vade Retro! Heresia!

Eta oraingo honetan, Aita Santuak, Gotzain batzuei eginiko pastoral komunikazio batean, Espainiako egoeraz zenbait gauza esan ditu. Virgilio Zapatero, Javier Solana, etab., bapatean atera dira Espainiaren oherearen eta izen onaren defendatzaile. Espainia honek baditu zaindari franko, alajaina! Lehen, nazional-katolizismo denboran, eliz gizonak eta "estatu katolikoa"; eta orain, "estatu laikoan", politikoa sozialistak: badirudi gizarte "etiko eta santua", akatsik gabea, eraiki dutela, "Jainkoa ez balitz bezala gobernatuz". Mesedez, adar jotzerik ez.



Jose Mari Astigarraga (*)

Bestalde, Aita Santua ez da, oraingo honetan behintzat, gobernatzaile politikoeekin sartu. Zer dela eta, orduan, hainbeste iskanbila? Atakatu sentitze horrek, segidan eta samindurik erantzun behar horrek, harrokeria edota kontzientzia txarra ez ote du adierazten? Zergatik jenda

deak xaxatzen dituen gai sexualak jaleatu, eta Aita Santuak salatzen dituen gure egitura eta pentsamolde kapitalistaren hainbat funtsezko akats garrantziko isildu? Adibidez: langabezia, kontsumokeria, diruaren eta boto-kopuruaren indarkeria, giza manipulazioa, marginazioa, eta askotan ondorio diren: droga, sexualitate deshumanizatua, alkohola, bizi-tzaren zentzu-galtzea, etab.

Centesimus Annum, azken entziklikan, dio: "beharrezkoa da bizi-tzeko era, kontsumo eta produkzio ereduak, hots, gaurko gizartean sartu diren eta finkatuak dauden egiturak aldatuz joatea".

Gauza askotan aurrera goazela badirudi ere, garrantzi handiko eta oinarrizko diren hainbat giza balore galduta edo galtzeko arriskuan ditugu. Edo ez?

(*) Arrasateko Parrokoa

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

LILURA

zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta, 5 behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Umeeek nagusiek baino ilusio handiagoarekin espero igandeko eguna


Kilometroak euriaren beldur

Arrasate ingurukoek ez dute aparkatzeko arazorik izango

Eguraldi ona eginez gero, igandean 45 milioiko irabaziak espero dituzte Kilometroak 91en antolatzaileek. 45 milioi horietatik, 14 zirkuituko sarrere-tan bilduko lirateke, beste horrenbeste enpresen laguntzaz, 20 milioi materialaren salmantan lortuko lirateke, eta

azkeneko 9 milioiak zirkuituan zehar jarritako tabernetan. Diru-kopuru hori lortzeko, 110.000ren bat pertsonari ahalik eta harrerarik onena emateko, prest daude antolakuntzan dabilzan 2.400 pertsonak.

Antolakuntzan dabilzanak, asko izanda ere, igandean Bergarara hurbiltzen diren guztien laguntza beharko dute, lana errazteko. Ez dirudi Arrasate ingurutik doazenek inolako arazorik izango dutenik autoa aparkatu ahal izateko, Labegaraietan aparkatzeko toki handia dago eta. Arazorik sor ez dadin, antolatzaileen aldetik asko eskertuko litzateke herri barrura sartzen ez saiatzea. Gainera, kontuan hartu behar da, arrasatearrentzat bereziki, Pesak, autobus-zerbitzu berezia jarri duela iganderako. Hori erabilteza ere ez legoke gaizki.



Ordutegia

- 9.30: Zirkuituaren inagurazioa.
- 11.30—13.00: . Musika, dantza eta ikuskizunak.
- 13.30: Bertsolariak.
- 13.00—15.30: . Bazkaria Kiroldegi eta frontoian.
- 15.30—17.30: . Musika, dantza eta ikuskizunak.
- 18.00: Egan taldea.

Usteak uste

Joan den astean, Mankomunitatearen Batzorde berria osatzeko bileran izan nintzen. Mahaiaren bueltan, bailarako herrietako ordezkariak: EAJko zortzi, EAKo hiru, HBko bi, EEko bat, eta independentea bestea. Batzordea osatzeko bat falta zen, oraindik aukeratu barik dagoen arrasatearra.

Mahaia osatzeko kide bat falta arren, Mankomunitateko karguak aukeratzea erabaki zen. Nola, ordea? Eztabaida hortxe piztu zen, Mankomunitateko Estatutuek horri buruz ez zuten ezer argitzen eta. EAJk, Mankomunitateko mahaian gehiengoa duenez, kargu bakoitzeko bozketa bat egitea eskatu zuen; HBk eta EAK aldiz, bozketa bakarra: boto gehien lortzen zuena lehendakaria izango zen, ondorengoa lehendakariordea eta hirugarrena diruzaina.

Debatea, demokrazian zentratu zen, ea bi proposamenetatik zein zen demokratikoa. Aurreko urteetan, biak erabili izan dira, beraz prezidenteak hor dira.

Bozketaren ondorioz, era demokratikoan aukeratuta, Mankomunitateko hiru karguak partidu bakar batekoak dira. Demokraziaren izenean, Deba Garaiko Udal-Elkartearen zuzendaritzak ez du bailarako errealitatea isladatzen. Demokratikoa bai, baina bidezkoa al da?

BEÑARDO KORTABARRIA

LEZARAN

MARKO-JARTZEAK • LAMINAK • MARGOAK

Biteri Etorbidea, 11 ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE

Tfnoa: 79 70 39

□ Batzarra Casinon

Casino Elkartearen datorren asteartean, hilak 8, arratsaldeko zazprietatik aurrera, bazkideen ezohizko batzar orokorra burutuko da.

□ Umezaintzaren eraikin berria

Umezaintzak San Josepen egin behar duen eraikin berria abendurako bukatuko da eta seguruenek urte berriarekin batera erabiltzeko moduan izango da. Eraikin berri honekin, Umezaintzak orain arte baino zerbitzu hobea eskaini ahal izango du, orain ume guztiak San Josepe eta Altamiran banatuta ditu eta. Eraikin berriak ekarriko duen nobedarekin garrantzitsuena, hiru hilabeteko umeentzako prestatuko den gela izango da. Gaur egun, Umezaintzan 23 pertsona ari dira lanean, aurtengo ikasturtean matrikulatu diren 199 umeak zaintzeko.

□ Takolo-Musakola proiektua

Hogeitabi milioi pezetako aurrekontuaz, Takolo eta Musakola artean dagoen bidea konpontzeko akordioa hartu du Foru Aldundiak. Bide hori konpontzeaz gain, Aretxabaletako saihesbidera artean zorian aurki daitezkeen zuloak betetzea ere erabaki da. Behin obrak bukatuko direnean, aipatutako bide-zatia Udalarena izango da eta ez Aldundiarena. Beraz, hurrengoko urteetan bide horretan kalterik sortuko balitz, Udalak konpondu beharko lituzke.

Matrikulazioan gorabehera gutxi

San Viatorrek bereganatu du ikasle gehien

Eskola Politeknikoko datuak ezagutzeko faltan, iazko eta aurtengo datuei begira, ez dirudi aldaketa handiegirik izan denik Arrasateko ikastetxeetako matrikulazioan.

Behar bada aipagarriena, San Viator Ikastolako gorakada izan daiteke, baina kontuan hartu behar da lehengo La Asunción ikastetxea alokatu eta bertako ikasle gehienak bereganatu dituela. Bestalde, San Frantzisko Xabier

Ikastolako matrikulazioaren beherakada ere deigarria da. Ez dirudi oso normalea ikastola batean matrikulazioak gora egitea eta bestean behera.

Gainontzeko ikastetxeek—Instituto, Umezaintza, La Merced, Musakola, San Andres eta Erguinek—iazko matrikula-kopuruari eutsi diote nolabait. Gorabeherak izan dira, baina ez oso kontuan hartzekoak.

Azkenik, ezin ahaztu Ferialeko Eskola publikoa itxi egin zutela nahiko ikasle ez zegoelako eta horrek aldaketa asko ekarri duela bertan zebiltzan ikasle eta irakasleentzat. Ikasleak, herriko beste ikastetxe batzutarra joan dira, eta irakasleak bertan daude "lan administratiboa" egiten.



Umeek badute ikasteko aukera franko


Matrikulazioak

Ikastetxea	Iaz	Aurtun
Institutoa	606	620
Umezaintza	110	130
La Merced	540	531
S. Viator	1011	1260
Musakola	195	195
S. Andres	200	225
Erguin	315	300
S. Fko. Xabier	1219	1120

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84



Kontzezlifio, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

URONDO
elektrizitatea



- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa Etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA Tfnoa: 79 80 90

Argazki-lehiaketa

"Gazteen grinak" argazki lehiaketaren sari-banaketa egingo da gaur bertan, hilak 4, arratsaldeko zazpietan Monterroneko Kultur Etxean. Argazki lehiaketa honek 35 argazkizale biltzea lortu du, eta berauek ia larogeitamar lan inguru aurkeztu dituzte. Juan Jose Uriarte, Mikel Rodriguez eta Jon Salaberri ASA taldekoak, Isabel Gallastegi Gazte-Batzordeko burua, eta Blanka Jauregi Gazte-Zerbitzukoia izan dira epaimahaian.

Squash ikastaroa

Umeei eta helduei zuzendutako Squash ikastaroei emango zaie hasiera larunbat honetan. Ikastaroaren iraupena hamar ordutakoa da, larunbatero ordu bat izango delarik. Izena emateko, interesatuek 79 04 27 telefono-zenbakira deitu edo Musakolako Kiroldegira joatea besterik ez daukate.

Ehiztarien azterketa

Pasa den astean burutu ziren Elkarre Autonomoko hiriburuetan ehiztarien lehenengo azterketak. Arrasatetik zortzi ehiztari joan ziren azterketa hori egitera eta oraindik beste hogeita daude egiteko zain. Dena den, azken hauek datorren urterarte itxaron beharko dute azterketa egiteko. Arrasaten 1400 lizentzia inguru daude baina aipatutako azterketa ehiztari berriek egin beharko dute soilik.



3.000 mendigoizale inguru bildu ziren Besaideko mendi-gailurrean

Besaideko eskultura inauguratuta

Eguraldiak ez lagundu arren jende ugari izan zen

Izugarrizko jende piloak bildu zen joan den igandean Besaiden eskultura berriaren inauguraketarako, 3.000 pertsona inguru ondorengo egunetan bertan egondakoek adierazi dutenez. Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina pentsa zitekeen bezain gaizki ere ez zen portatu. Izan ere, ia goiz guztian zehar, meza bukatu zen arte, aterri egon zen. Meza bukatu eta gero, dantzariak beren lanari ekin aurretik, ura jausten hasi zen. Euri-zaparrada dexentea zenez, dantzarien ekitaldia bertan behera uztea

erabaki zen.

Ordura arte, meza eta Euskal Mendizaleen Federakundeko lehendakaria den Pako Iriondoren agurra entzuteko aukera izan zen. Iriondok, urtean zehar mendian hil direnak gogoratzeaz gain, Besaideko lehen eskultura inauguratu zeneko eguna gogoratu zuen, hura gogorragoa izan zela esanez. Euri-zaparrada medio, Besaiden bildutakoek kalerako bidea hartzea erabaki zuten, eta benetan polita izan zen jaitsiera, gehienek elkarrekin egin zuten eta.



**Parques
y Jardines**

**PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA**

**LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR**

**LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



□ Birgizarteratze-programa

Arrasateko Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentzio-Zerbitzuak birgizarteratze programa bat jarri du martxan, toxikomano edota alkoholikohien gizarteratzea albideratzeko helburuaz. Zentzu honetan, toxikomano edota alkoholiko ohien kontrataziorako Eusko Jaurlaritzaren laguntza-programa bultzatzen konprometatzen da aipatutako Prebentzio-Zerbitzua.

Egoera ezberdinek erantzunak ere ezberdinak behar dituztelako ustean, laguntza hau solidaritaterako elementu bat bezala ikusten da, bazterte sozialaren mugak hausteko eta Arrasaten, gure artean, gizarteratzeko ahalegin handia egiten ari diren pertsonengan ilusioa sortzeko balio izango duena.

□ Istripua Takolon

Joan den asteartean, auto batek Asier Bergaretxe, hemeretzi urteko arrasatear gaztea, harrapatu zuen Takoloko bidegurutzean. Gaztearen egoera larria ikusirik, Gurutze Gorriko anbulantziak Gasteizeko Txagorritxura eraman zuen. Gurutze Gorrikoek ziotenez, Asierrek femurra zeukan apurtuta eta Txagorritxun bertan gelditu zen ingresatuta.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

Jose Luis Rodero & Maria Josefa Urrutia.
Irailaren 28an. Elizaz.



Larrea baserria oraindik zutik

Larrea: ordezkoez aukera

Etxebizitzen banaketarako 23 eskari baztertu

Larreko etxebizitzak eskuratuko ez dituztenen zerrenda dagoenez Udaltxean dago. Gogora daitekeenez, etxebizitzaren adjudikazioa egiteko, Udalak ehun eta hamar laguneko zerrenda bidali zuen aztertuta izan zedin. Ikerketa egin ondoren, Udalak aurkeztutako ehun izeneko zerrendatik, hogeitahiru kanpoan gelditu dira.

Etxe propioa izateagatik, bi eskari dira zerrendatik kanpo gelditu direnak; eskatzen zen dokumentazioa epearen barruan ez aurkeztegatik zazpi izan dira zerrendatik kanporatuak; eta azkenik

baldintza ekonomikoak betetzen ez zituztelako hamalau kasu gelditu dira zerrendatik kanpo.

Hortaz, zerrendetatik kanpo hogeitahiru lagun gelditu direnez, ordezkoez zerrendetan zeuden lehenei, kategorien arabera, Larrean etxebizitza eskuratu ahal izateko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie: A kategorian ordezkoez lehen biei, B kategorian zortziri, C kategorian lau lehenei eta D kategorian 9 lehenei. Orain gertatu denaren arabera, hogeitahiru berrietatik batzuk zerrendaz kanpo gelditzea erraza litzateke.

Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe, 5 Etxabehea. Erguin auzoa. ARRASATE Tfnoa: 79 04 46



Karmelo

railaren 14a, arratsaldeko betan. Denok isilik eta muskuluak teinkaturik. Belarriak tente kantu zoragarri hori aditzen.

Eskenatokian euskaldun haurrideak eta etsaiak; kasu honetan frantsesak.

Inguruetan askatasuna lau haizetara; ikusleen

bihotz-taupadak zalu, gure buruetan emozio-izpi frango, bira eta bira, historia, gaurkoa eta geroa uztarturik.

Bertan ginenok hunkiturik, negarrari emango ez emango, malkoei utsiz, askatasun bidez amesteko baino gehiago.

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate 79 98 94

Gabriel Elorriaga Dka.

Loditasuna • Zelulitia
Zelulopolisiaren
tratamendua

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C Eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

ARRASATE PRESS



77 05 65




DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZ AGENTZIA


ITURRIOTZ, 23 etxebeha ARRASATE Tfnoa: 77 13 02 Faxa: 77 14 27



— ▲ —
Bada makina bat jende zeregin handirik ez duena. Taxislarietara galdetu bestela. Larunbat gauean, taxi-geltokiko **telefonoa hormatik kendu** eta norbaitzuek puskatu egin zuten. Taxistek, beste telefono bat erosi eta horman jarri dute. Hori bai!, badaezpada, orain telefonoa egunero ipintzen eta kentzen dute.




— ▲ —
Urtero egiten duten bezala, **Eskola Politekniko**tik ateratako lehen promozioako elkarrekin bazkaltzeko bildu ziren. Aurtengoan, San Andreseko Torrepe elkartearen egin zuten bazkari hori. Bertan, oraindik bizirik dauden hamasei lagunentzat janaria soberan: legatza saltsa berdetan eta okela ugari. Umore ona ez zen falta izan 1943garren urtean Eskola Politeknikoa inauguratu zuten laguneren artean.



◀ Egun euritsua izan zuten arren, gustora etorri ziren Salburuatik Arrasateko Jeltzaleak. Aurtengo **Alderdi Egunean** ere txozna jarri zuten arrasatearrek, janari eta edari mordoarekin. Prestatutako bazkari, salda eta kafe guztiak agortu zitzaizkien, eta, esan bezala, denak gustora bueltatu baziren, are gustorago Juan Jose Uriarte, *Bermi*, Kanarietarako bidaia suertatu bait zitzaion Salburuako tonbolan.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea, 35 Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

Plus Ultra taberna

Maalako errabala, 17
ARRASATE Tfnoa: 79 20 57

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33 ARRASATE

Izen
PROPIOAK



◀ **Al-Andalusekoek**

joan den larunbaterako udazkeneko lehen jaialdia antolatu zuten Amaia antzokian. Kantaore, bailaora eta rociero ugarik parte hartu zuten jaialdira ez zen ikusle gehiegi bildu. Dena dela, han zeudenek ondo baino hobeto pasatu zuten.

● **Ana Uribesalgo**, 25 urtekoa. Arrasaten bizi den aretxabaletar hau, "El Correo Español- El Pueblo Vasco" egunkariaren Arrasate eta Bergarako berriemale berria da. Anak Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioako fakultatean, publizitate adarrean.

● **Jesus Mari Barrutiabengoa**, 28 urte. 81-82 eta 82-83 denboraldietan Mondrako lehen taldearekin jolastu eta gero, orain emakumezkoen futbol-taldea entrenatzen hasi da. Barrutiabengoak industri maisutza du egina, baina bizi-modua aurrera ateratzeko Donostian piano eta solfeo irakasten ditu.

● **Patxi Nafarratek**, 70 urtekoak eta **Jullo Irlondok**, 59 urtekoak, Mikis Theodorakisek Bilbon estreinatutako "Medea" operan kantatzen dute. Biak Parrokiko Koruan abesten dute, eta askotan Iruñea, Bilbo eta Donostiako Orfeoiarekin ere ibiltzen dira.

Igandean, urteroko jaia ospatu zuen Arrasateko **Eusko Alkartasunak**. Eguna hasteko, Meza izan zuten frantziskotarren elizan eta ondoren, bazkaria Alkartean. Bazkarian, 140 pertsona inguru egon ziren; horien artean, Inazio Oliberi idazkari nagusia, Angel Larrañaga, Gipuzkoako alderdiko lehendakaria eta Klaudio Saizar, idazkaria. ▶




LEINTZ UDAL  EUSKALTEGIA

Leintz Udal-Euskaltegiak alfabetatze eta EGA ikastaroak antolatzen ditu

Interesaturik baldin bazaude oraintxe duzu aukera. Dei ezazu 79 21 68 tfnora edo pasa zaitetz Aretxabaletako Durana, 11tik.

LIZARRA
kafetegia

Leniz, 2 ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35



Frikite S.L.

Bideoa. Audioa. HI-FI. Auto-irradiak. Compact Disc. Musikaxeteak. Telekomunikazioak. Antenak. Irrati-telefonoak. Telefono mugikorak. Hifi akzesorioak. Megafonia-alogera. Bideo-grabazioak. Erosketa-aholkularitza. Multibisioa.

Frikite S.L.

Otalora, 25

ARRASATE

Tfnoa: 77 13 20

Faxa: 79 88 56

Onkyo. Teac. Harman Kardon. Nakamichi. Kef. JBL. Mission. Alpine. Topak. Macrom. Philips. Sony. Panasonic. JVC. Yaesu. MOBIRA. ICOM. Fagor. Televes. Ecler. Martin. Liberty. Zend. OHM.

Frikite S.L.

HISREI

SUKALDE OSOTUAK

Zarugalde, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 02 82 Faxa: 77 09 07

ME

MIKEL ELORZA ETXEBERRIA

ASEGURU-ARTEKARIA

Zarugalde, 44 etxabehea ARRASATE Tfnoa: 77 13 09



Maritxu Kajoi 91.

Командирски

urriak 4

ARRASATE

Mikel Elorza Etxeberria



Aseguru-
-artekaria

Zarugalde, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 02 82



Sukalde
osotuk

Zarugalde, 44 etxabehea ARRASATE

Tfnoa: 77 13 09

B A R



Kajoi

Erdiko kale, 22 ARRASATE



Eraña
aholkularitza

Kontzezino kalea, 4 etxabehea ARRASATE


Tfnoa: 77 02 82

EZ GAUDE DANOK





Erdiko kale, 22 ARRASATE



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezino kalea, 4 etxabehea ARRASATE Tfnoa: 79 83 95

Jose Mari Loiti, 53 urteko arrasatearra, Cerrajerako eskolatik ateratako enpresari horietakoa da. Ikasi zuen tokian, gero irakasten ibili zen. Enpresa askotan egin du lan eta orain Ofiatin ari da. Udal-Hauteskundeetan EAJko alkategaia izan zen. Joan den astean Deba Garaiko Mankomunitateko Lehendakari izendatu zuten.

— Zinegotzi Udaletxean, Lehendakari Mankomunitatean, EAJren barruan, baina afiliatu barik, ez?

— Egia da, afiliatu barik nago. EAJko kideek, Udaletxean ni bezalako gizonak behar zirela esanez, Udal-Hauteskundeetan alkategai izateko proposamena egin zidaten. Pentsatu eta gero, baiezkoa eman nien, agindutakoa betetzekotan.

— Harrez gero, damutu zara noizbait?

— Ez, damutu ez naiz inoiz damutu. Hori bai, gauzak ez dira batere samur joan. Dena dela, badakit guztien gustoa egitea oso zaila dela, dena ez doa beti norberak nahi duen moduan... jendearen aurrean lan egin behar da, eta gutxi edo asko beti sufritu behar da zerbait.

Bestalde, uste dut, gauza onerako udal-mailan politika gehiegi egiten dela. Politika egiteko badaude beste toki aproposagoak; Udaletxean herritik oso hurbil gaude eta bertan gaudenon ahalegin bakarria herriaren alde lan egitea izan behar da, politikariak alde batera utzita.

— Zein eritzi daukazu alkatea aukeratzerakoan gertatu zenaz?

— Gai horri buruz, berba larregi egin da. Aspertuta nago horretaz hitz egiten, gauzak dauden moduan daude eta kito!

— Joan den astean, esan-

Jose Mari Loiti

Mankomunitateko lehendakari berria



dakoa ez zenuela bete zioen EAKo Jose Mari Urizarrek...

— Ez naiz polemizatzeke sartu, beraz ez diet erantzungo horrelako salaketei.

— Azken lau urteetan HBk Udalean egin duen lanari, zer deritzozu?

— Beno, printzipioz inor ez dut deskalifikatzen, ez HBkoa eta ez PSOEkoa izateagatik. Gestioari buruz, gauza batzuk ondo eta beste batzuk ez hain ondo egin dira esango nuke. Joan diren lau urteetan, ez da HB izan lana egin duen bakarria, gai nontzekoek ere egin dute. Orokorrean esanda, oraindik

egiteko asko dago.

— Egitekoak... esaterako?

— Uherkape, langabezia, drogomenpekotasuna, hezkuntza aldetik gazteen porrota, etxebizitzaren arazoa, aparkalekuak... behar bada ezingo ditugu konpondu, baina saiatu, bai. Ahal dugun neurrian, Hirigintza, Euskara eta Hezkuntza Batzordeetan, EAJren esku daudenetan alegia, azterketa sakona egin behar dugu, jende gehienak parte har dezan.

— Uherkapen, nork sartu zuen hanka?

— Horrek ez du garrantzirik. Konponketak du garran-

tzia, eta horretan gabiltza. Negua badator, eta aurretik horma bukatzea komeni zaigu. Arazoaren ondorioz kalte turrik suertatu garenoi, borondate onik ez zaigu falta. Irtenbidea ez da batere erraza, baina konpondu ahal izango da.

— Duela gutxi Mankomunitateko Lehendakari izendatu zaituzte, orduan ere arazoak izan ziren...

— Demokraziaren barruan bidezkoa da bakoitzak bere ideiak eta jarrerak defendatzea. Gure ustez, zuzenena kargu bakoitzeko botazio bat egitea zen. Gainera, prezidenteak ere baziren, Mankomunitatea osatu zen lehen aldira horrela egin bait zen.

Bestalde, Mankomunitateko Lehendakaria, Lehendakariordea eta Diruzaina EAJkoak izateak ez du aparteko garrantzirik. Ez duela bailarako errealitatea isladatzen? HBk ere Arrasateko Udalean, Alkatea eta Alkateordea dauzka eta inork ez du ezer esan.

— Mankomunitateko buru zarenez, zein asmo dituzu?

— Mankomunitatea, bailarako herriek osatutako zerbitzu-sarea da. Ez dakit aurreko lau urteetan egingakoarekiko jarraikortasunik izango dugun edo ez. Horregatik, lau urteetarako programa egin behar dugu. Orokorrean, honako hauek izango lirarteke datozen urteetarako egin behar nagusiak: 1) Enplegu eta Gaikuntza planari jarraipena eman eta ahal izanez gero, hobetu. 2) Europako erronkaren aurrean, Epeleko isurtegia bukatu eta hiltegiaren homologazioa lortu. 3) Hirigintza sailarekin zer egin behar den definitu. 4) Institutio mailan harremanak hobetu, bai Jaurilaritza eta bai Aldundiarekin ere. 5) Bailarako komunikabideak hobetu.

— **“Alkatearen hautaketaz hitz egiten aspertuta nago”**

Maritxuren mirariaren zain

Gure nahia Maritxu Kajoiri buruzko erreportaia serioa egitea zen, baina batzordekoekin izandako solasaldiaren, edo hobeto, beraien artean izandako eztabaiden ondoren, beldur gara honoko hau ez ote den izango ezer baino gehiago, batzordeko barne-istiluei buruzko erreportaia. Ez luke Maritxuk mirari txarra egingo, guzti hauek dominatzeko zerbait egingo balu.

Maritxu Kajoiri buruzko lehen erreflexioak egitean, serio eta ados agertu zitzaizkigun gurekin izan ziren Juan Bautista Agirre, Txispas eta Harristi. Hauen iritziz, era honetako jaiegun baten beharra zegoen Arrasaten. Izan ere, San Juanetan jende askok alde egiten du eta Santamasetako eguraldiak ez du gehiegi laguntzen. Maritxu izan da behar hori bete duen jaia. Oporrak pasatu berriak direnean antolatzeko ere lagundu du Maritxu egunaren arrakastan, udan egindako lagunekin harremanak oraindik bero daudenez, lagun berri hauek herri-ara gonbidatzen bait dituzte arrasatearrek.

Arrakastaren ondorioz, zenbait jende jaiak luzatzen eta ostiralean lanik ez egiten saiatu da, baina Txispasek garbi dauka txikiteroen jaiak ez dagoela horrelako gauzarako tokirik. "Txikiteroen jaiak da eta txikiteroak egiten

duena da, lana, duxatxo bat hartu eta gero, txikiteatu".

Batzordea

Jaia antolatzen ibiltzen den taldeari buruz zer-

bait jakin guran genbiltzela hasi ginen konturatzen batzordekoen barne-zatiketat. Juan Bautistak, jaia inork ez zuela antolatzen idazteko gomendatu zigun, berez sortutako jaia zela. Txispas eta

Harristi ez zeuden ados. "Bo, hi, ez esan hori. Talde bat jo eta sua ibiltzen gaituk; hi agertzen haiz, eta lanik ez dagoela esaten. Hi ez haiz etortzen, hori bazekiagu, baina gu hor ibiltzen gaituk tontoen moduan". Juan Bautista ez zen gustora gelditu entzundakoarekin, bera, duela sei urte, batzordetik joan zenetik, ez zutela ezer egin esaten zuen eta. Gainera, batzordetik joan ez, bota egin zutela kexatzen zen. "Ni bota egin ninduten; koadrotxo bat oparitu eta kanpora!". Txispasek ez zuen hori ukatu baina datorren urterako berri onartuko zutela agindu zion.

Espulatsuak espulsatuta, zenbat jende dago Maritxuko batzordean? "Lanerako 6 edo 7, afaltzeko 25" bota zigun Txispasek borobil. Baina hor ere ez zegoen Juan Bautista ados, afariarenean bat gutxiago jartzeko esan zuen, bera ez dela aspaldian joan eta.

Etengabeko eztabaida haiek ikusita, ukazina zen bi sektore ezberdinekin ari



Jendeak prest ditu soineko eta trajeak

ginela hizketan eta azkenean onartu beharrean aurkitu ziren. "Bai, ni kritikoa naiz eta bi hauek ofizialistak" aitortu zigun Juan Bautistak, "Ni Añamendikoa eta hauek «Renovación»ekoak".

Polemika amaiezina

Jaiaren inguruan sortzen den polemika, beti izango dela esan ziguten. "Hori, Maritxuren mirariaren arabera izaten da. Iaz, dirua bota zuenean, ez zen ezer gertatu, baina kondoiena eta toreroarenarekin denok dakigu nolako eztabaidak izan ziren". Zentzu honetan, kontzejal denetik gauzak aldatu egin direla esan zioten beste biek Txispasi. "Bai, hau Udalean sartu zenetik kontrol handiagoa dugu. Ez dago eskubiderik".

Dena den, Arrasaten erlijioaren aurrean izan den jarrera umoretsuak asko laguntzen du, antolatzaileen ustez, Maritxu jaiaren harrera onean. Oñatin, adibidez, ez litzateke posible izango honelako jai bat Juan Bautistak zioenez. "Nire ama Oñatikoa da eta ondo dakit nik hori".

Kartela

Hala ere, aurtengo polemikarik handiena ez da sortu erlijiosoarekin, kartelarekin baizik. Harristiri ez zaio batere gustatu. "Zakarra ez, oso zakarra da. Kartelak alaiagoa behar du. Hau oso



Maritxuren miraria, sekretua aurten ere


hotza da". Txispas ez zegoen ados eta izugarritzko azalpen luzeak eman zituen kartelaren gaurkotasuna de-

fendatzen, Mosku gora, Mosku behera, baina inor konbentzitu barik. Azkenik, kartela ulertzeko maila inte-

la milioi t'erdiko aurrekontua

Aurtengo Maritxurako aurrekontua 1.390.000 PTA.takoa da eta, urtero bezala, eskapulario eta txanpainaren salmentekin eta tabernarien laguntzarekin ordaindu nahi dute antolatzaileek. Aurtendik abisatu dute eskapularioak 200pta.tan salduko dituztela datorren urtean. Txanpanari dagokionez, hasieran ez zuten zenbakirik eman "Artzainek ardiekin moduan, iaz baino bat gutxiago" baina azkenean 6.000 botila zirela aitortu zuten. Tabernarien diru-laguntzek, azkenik, aurrekontuaren %30a inguru betetzen die.

Udalari ez diote diru-laguntzarik eskatzen. "Instituzioei ez diegu dirurik eskatzen. Jaiak antolatzerakoan, asko mugatzen dute horrelako laguntzek. Santamasetan esperientzia txarra izan genuen duela urte batzuk eta ordutik diru instituzionalik ez jasotzea erabaki genuen".



**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea, 30 ARRASATE Tfnoa: 79 89 89



Aurten bigarren mailan jokatuko duen taldea

Larunbatean saskibaloi-liga hasiko

Aurten sei milioiko aurrekontua hamar talderentzat


Igande honetan, Centraljet Euskal Air saski-

baloī-taldeak aurtengo ligari hasiera emango dio, Zallan eta bertako taldearen aurkako

partiduaz. Printzipioz, arrasatearrek gutxienez iazko denboraldia errepikatu nahi dute. Horretarako, Txus Brizueta entrenatzailearekin lana egiten segitzeaz gain, ahalegin berezia egin dute Aitor Saez de Viteri joan ez zedin eta gainera Iñigo Aierbe urretxuarra fitxatu dute. Arrasatearrek, bigarren mailan onenatarikoak direla erakusteko, beste hemeretzi talderen ahaleginak gainditu beharko dituzte.

Centraljet Euskal Air taldearen gain, Arrasateko saskibaloiaren egiturari, beste bederatzi talde kontuan hartu behar dira. Horren ordaina, sei milioiko aurrekontua aurtengo denboraldirako.

Hurrengo partidua



Joan den astean, urrezko bi puntu eskuratu zuten Mondra taldeak Getxon jokatuako partiduan. Arrasatearren entrenatzaileak zioenez, zorte asko izan omen zuten, orain arte jokatu duten partidu txarrena izan bait zen. Izagirreraren ustez, getxotarrek hobeto jokatu zuten, baina ez ziren oso fin ibili Txutxinen ate aurrean.

Larunbatean, Santutxu taldea etorriko da Atxabalpera. Printzipioz, talde zaila izan behar du, sailkapenera begiraturaz gero sei puntu dituela ikusten bait da. Mondrako entrenatzaileak ere, partidu zailtzat jotzen zuten larunbatekoa "izen handia ez duten talde hauek nekezenak direlako. Honelako partiduei begira, ez da erraza jokalariai motibatzea eta hortik etortzen dira sorpresak. Konfidantza, futboleant ez da batere lagun ona". Maritxu Kajoiaren gauari ere beldur zion Mondrako entrenatzaileak, "larunbatean ikusiko dugu zein ibili den parrandan eta zein zaindu den".

Jokalaria eta taldearen egoera fisikoari begira, ez dago nobedade handirik, bakarrik Ruiz eta Maturana erdi-lesionatuta dabiltzala. Ea bada larunbatean ez den narbaritzen Maritxuren eraginik!



Izena	Postua	Nongoa	Adina	Altuera
Jorge Fernandez	Eskolta	Arrasate	19	1,90
Igor Urisabel	Pibota	Bergara	18	1,99
Raul Moreno	Antolatzailea	Arrasate	16	1,70
Iker Zubiria	Eskolta	Oñati	19	1,84
Iñigo Aierbe	Hegal. pibota	Urretxu	23	1,92
Lander Errasti	Hegalekoa	Arrasate	23	1,95
Iban Fdz. Arroiabe	Hegalekoa	Arrasate	22	1,92
Aitor Saez de Viteri	Antolatzailea	Gasteiz	23	1,88
Jose Ramon Garai	Pibota	Arrasate	24	1,99
Gerardo Mondragon	Pibota	Arrasate	21	1,98
Andres Gutierrez	Hegalekoa	Aretxabaleta	17	1,91
Unai Lopez	Antolatzailea	Arrasate	19	1,75

Berango



Sukalde-altzariak, mahaiak eta aulkiak


Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

JOXE

VAZQUEZ

Emakumezkoen
futbolaren gidari

PODIUMA



Joxe Vazquez, txiki-txikitatik futbolaren munduan sartuta dabil. Gehienen moduan, lehen ostikadak eskolako patioan eman zituen, gero adin-kategoria guztiak pasatuta Mondran ere jokatu zuen, erretiratu arte. Jokalari izateari utzi zion, baina ez futbolaren inguruan mugitzeari eta Arrasateko futbolaren alde lan egiteari. Emakumezkoen futbol-taldea sortu zenean, ez zuen bi aldiz pentsatu eta entrenatzaile postua hartu zuen. Iazko denboraldia bukatuta, karguari utzi zion, "denborarik ez nuelako eta ia nekien guztia erakutsi diedalako".

Joxe Vazquezek ez dauka entrenatzaile-titulurik, beraz bizitzan zehar ikasitakoa irakasten saiatzen den horietakoa da. "Emakumeak entrenatzea ez da batere erraza, ia dena irakatsi behar zaitelako. Mutikoek umetatik egiten dute futboleak, eta etortzen direnean behintzat oinarriko gauzak badakirikite. Emakumezkoekin ez da hori gertatzen, futbola ikusten dute, gustatzen zaie eta entrenamendura etortzen dira, baina ordira arte sekulan baloi bat ere ikutu barik". Alabari laguntzearren sartu omen zen Joxe Arrasateko emakumezkoen taldea entrenatzen. Orduetik

urte batzuk pasatu dira eta gizon hau, emakumezkoen futbolak egin duen gorakadaren lekuko eta arduradunetarikoa bat izan da. "Orain dagoen taldeak ez dauka zerikusirik lehen denboraldikoarekin. Orduan egiten genuen gauza bakarra, baloiaren atzetik korrika ibiltzea zen. Gaur egun, esango nuke Arrasateko emakumezkoen futbol taldeak ondo jokatzen duela. Oraindik hobeto joka dezakete, baina gauzak ondo egiten dituzte. Gipuzkoako liga jokatuko balitz langarrenak izango ginateke".

Neskak gauzak hobeto egin ditzaketela dio Joxe Vazquezek, "behintzat, seriotasunet hartuz gero. Asko etortzen dira eta denbora gutxiren buruan alde. Horrela ezinda ezer egin, jarraipena behar da". Jarraikotasuna, Joxek bizi guztian izan duen balorea da, orain entrenatzaile izateari utzita ere, taldeko delegatua bait da.

◆ Pilotan emaitza eskasak

Klubaren arteko ligako hirugarren ihardunaldia ez zen batere ona izan Arrasateko pilotarientzat. Gazteen taldean Soralezkoen aurka aritu ziren eta garaipen bakarra lortu zuten (6-18 alebin eta kadeteetan, eta 18-12 infantiletan). Nagusien taldean, Jubenilek bakarrik irabazi zuten, Bergararen aurka jokatutako partiduetan (22-11 jubeniletan, 9-22 juniorretan eta 19-22 seniorretan).

Hurrengo asteburuan, ligako lehen fasearen bigarren buelta hasiko da eta arrasatearrek Oñatiko Aloña-Mendikoak izango dituzte aurrez aurre.

◆ Emakumezkoen futbola

Joan den astean eman zitzaion hasiera emakumezko futbol-ligari. Mondrako neskek etxean jokatu zuten, Anaitasuna taldearen aurka, eta denboraldiko lehen bi puntuak irabazi zituzten, 1 eta 0 irabazi bait zuten. Ligako lehen partidua izateko, arrasatearrek nahiko ondo jokatu zuten. Garaipeneko gola, Anak lortu zuen partidua lehen zatian.

Datorren astean, Mondrako neskak Bidasoako Berara joango dira, hango taldearen aurka jokatuzko. Partidu horri begira, arrasatearrak baikor ageri ziren, beratarren ekipoa ez bait da beste mundukoa. Ea bada joan den astekoa errepikatuzko gauza diren.

◆ Alonso ekipo barik

Azken berrien arabera, badirudi Enrike Alonso txirrindularia datorren denboraldirako talde barik gelditu dela. Dirudenez, arrasatearrak, Miguel Moreno bere entrenatzailearekin ahozko akordioa eginda zeukan, baina honek ez omen du bete. Alonso oso haserre zegoen, eta orain beste talderen bat bilatu beharko du.

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria


Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99

Miles

Hitz gutxi, apenas. Miles hil da, eta zer? Denok hil behar dugu, noizbait. Honek behintzat ez du denbora alferrik galdu kolesterola edo urdaila zaintzen. "A tope" bizi izan da, gerorako ezer gorde gabe. Eta bizitza gastatu zaionean, hil egin da. Eta zer? Gaizki ala? Bitartean egin dituenak, droga, sexu eta abarretan berarentzat bentaja edo kalte. Baina bizi izan den bitartean sortu duen musika, hori hor dago, guretzat, betirako.

Horregatik hiz gutxi, apenas. Pena bai, pixka bat, akaso. Miles hil da. Beno... eta zer?


MIKEL IRIZAR



"Jazz-ari ez zaio jaramonik egiten hemen (Ipar Amerikan) zuriak dena irabazi nahi duelako. Zuriak beste zuri batzuk ikusi nahi ditu irabazten, zuk egiten duzun bezalaxe, baina zuriak ezin dute irabazi jazz eta blues-kontutan, hauek beltzek asmatuak dira eta. Horregatik, Europan jotzen dugunean, hango zuriak apreziatu egiten gaituzte, badakitelako nork egin duen zer, eta onartu egiten dute; baina amerikar zuri gehienek ez».

(1987an Etxe Zurian izan zuen afarian politiko baten emazteari emandako erantzuna. MILES *The Autobiography*, 370 or.)

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL


Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21

Ordezkaritza: Labegaraieta z/g, Tfnoa: 76 53 69

Batuta

Jabier Hernandez

Aste honetako batuta sailera ez dugu musikorik ekarri, baina bai musikarekin lotura handia duen arrasatear bat. Jabier Hernandez diskak saltzen hasi zen duela hamabost edo hamasei urte eta orain, bere betiko lan hori utzi gabe, musikarekin lotutako enpresa handiagotan dago buru-belarri sartua.

Urte askotxo pasatu dira Jabier kontzertuak antolatzen hasi zenetik. "Antolatu genuen lehenengo kontzertua Orquesta Mondragónena izan zen. Orduan 50.000 PTA. besterik ez zituzten kobratzen. Bigarrena, Leño taldearen kontzertua izan zen, 30.000 pta. ren truke ekarri genituen. Bi kontzertu hauek dira hoberen gogoratzen ditudanak".

Lehen kontzertu haietatik hona, bizimodu bihurtu ditu hobby moduan hasitako antolakuntzak. Orain, Arrasate txiki gelditu zaio eta talde famatu askoren Estatu eta Europa mailako birak antolatzen ditu. "The Boogie Brothers, The del Fuegos eta Dr. Feelgod taldeen bira ari naiz prestatzen orain".

Folk musika bultzatzeko ahale-



ginetan ere badabil Jabier aspaldi honetan. "Ruper Ordorika eta Billy Braggen bira bat antolatu dugu estatu mailan". Euskal Herriko Folk taldeak oso maila onean ikusten ditu, baina gutxiengoan musika izaki, ez die hemendik kanpora etorkizun gehiegi ikusten.

Gehien maite duen musika, Rock and Roll-a dela erantzuten du pentsatu barik. Musika klasikoa jasan dezakeela ere badio, eta ea opera bat aguantatuko lukeen galdetzen zaionean, baietz erantzuten du. "Meridan bat ikusi nuen eta ondo zegoen".

Arrasateko musika-taldeei buruz, ezin du asko esan, aspaldian galduta bait dabil. Dena den, garai batean *Súbito Rubor* eta *Doble Incongruencia* zituen gustokoen. Bukatzeko, aitormen bat egiten du: "Arrasaten sekula ez zaizkigu gauzak nahi bezala atera, duela urte batzuetako San Juanetan Zaldibarren antolatutako kontzertua ez bada."

"Arrasaten ez zaizkigu sekula gauzak nahi bezala atera"

Txio txioak

■ Musikazaleen Batzarra

Datorren astearteko arratsaldeko zazpietarako, hilak 8, deialdia egin nahi zaie Arrasaten musika inguruan mugitzen diren guztiei, Monterronen egingo den batzarrerako. Batzarraren helburua, Ospital Zaharra berritu ondorengo plangintza egitea litzateke, zeintzuk diren Arrasateko musika-taldeen beharrak eta zeintzuk eraikuntzak bete behar dituen helburuak. Era berean, musikaren patronatua egiteko asmoa ere badago, eta oso posible litzateke asmo horren berri ematea astearteko batzarrean.

■ Goikobalu Donapaleun

Joan den igandean, Goikobalu Abesbatzak Donapaleun kantatu zuen hegoaldeko bi abesbatz eta iparraldeko beste seirekin. Behar bada, gehiegi esatea izango da, baina ikusleek adierazi dutenez arrasatearrek kantatu zuten hoberen. Javier Belloportu famatuak ere gauza bera esan zuen; gainera, aipagarria da eguneko programaren barruan kantatzeko azken txanda eman ziotela Goikobaluri, hau da, onena.

■ Kontzertua Parrokian

Datorren astean, hilaren 11an, "Capilla Peñaflorida" taldeak kontzertua eskainiko du Arrasateko Parrokian. Talde hau hamasei lagunek osatzen dute, eta Donostiako musika-hamabostaldian izugarritzko arrakasta lortu zuen. Jon Babues da taldearen zuzendari eta kontzertuari arratsaldeko 8etan emango diote hasiera.


KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin, 5 ARRASATE Tfnoa: 79 25 77

"EDERTU"

ileapaindegia



San Andres auzoa. Tfnoa: 79 04 28

Kilometroak, Bergaran

Urtearen gurrpilari ailegatu zaio aurten ere urriaren lehen domekaren txanda; hau da, Kilometroak antolatzearen ardura beste herri batera iristen da. Iaz Andoaini tokatu zitzaion eta aurten Bergarari. Urrun bariarik dabil aspaldian, beraz.

Iganderako dena gertu izateko, aspaldi hasi ziren herri-lanean bergararrak eta ingurukoak, ez da txantxetakoa izaten horrelako egun bat antolatzeak dakarren lana eta: aparkalekuak direla, jantokiak, ikuskizunak, etab., ez zen aspaldian lanik faltako Bergara aldean bizkarra arrimatu nahi zuenarentzat.

Honela, bada, benetako herri-lana euskarari laguntzeko egindakoa, eta hain zuzen ere, modu batera edo bestera euskarari laguntzera etorriko den jendeari egun atsegina pasatzeko burututakoa.

Zertarako guzti hau galdetzen hasita dago bat baino gehiago, hala ere. Gogora ekar genezake Patziku Perurenari saritu zitzaion "ni aldekoen kontrakoa naiz" artikulua ezaguna, berorretan azaltzen zituelako halako egun ponpoxoen atzean ezkututzen den hainbat fartsa (itxurakeria, autojustifikazioak, etab...).

Ez da falta, halaber, Ikastolek jada ez daukatela diru-arazorik esaten duenik,

eta izanez gero, gainera, ez dutela zertan beti poltsiko beretsuetatik ateratzen aritu beharrik, joan daitezela diru horren eske eman behar dutenengana; eta halakoak entzunda, ez da faltako argudiatuko duenik biltzen den diruaren zati handi bat Seaskarentzat eta Nafarroako ikastolentzat bideratzen dela, euskararen aldeko lanak ez duela beti agonia moduko bat izan behar, eta beharrezko direla ospakizun jendetsuak, ekintza atseginak eta egun-pasa ludikoak berriro ere indarrak hartzeko. Nortzuek arrazoi?

Eztabaidak eztabaida, aurten ere Bergaran ditugu Kilometroak eta seguraski,

gehientsuenetan gertatu bezala, zifra handitan eta kopuru harrigarritan laburbilduko da egunak emandakoa, emaitza kuantitatiboak izango dira bistaratuko direnak. Eta galdera da: honelako jaialdien eragina neurtzeko, erabil ote daiteke bestelako erizpiderik, kualitatiboagorik alegia?

Hau da, ekintza handi hau burutzeko antolaketa-lanetan ari direnak zenbateraino ari dira gero eguneroko Jardunean elkarlanean urte osoan zehar? Honetarantz bideratu behar al dira horrelako iniziatibek martxan jartzen dituzten giza baliabi-deak?

ATALATAIKOAN

SUKALDARITZA




SEXUALITATEA

Emalea: Arantxa Lizaso "Plan Mondragón"-en "elkadura arloko partaidea"

Praktikoa: Mari Tere Altuna (Sukaldaria)

Urriak 8: Izozketa eta desiozketa

Arrats. 3retan



SUKALDARITZA

Emalea: Mari Tere Altuna sukaldari ezaguna

Urriaren 15etik Abenduaren 10erarte

Matrikula 1000 pta

Izenematea aurrez AEDn

Arratsaldeko Getadik 9etara

Prestatutako jakiak bertan zozketatuko dira.



Emalea: Amaia Vázquez

Urriaren 20ean / Arrats. 3retan

Sexualitate ikastaroa

"Sexualitatea norberareu bizipenetatik"

5 saiotan

Matrikula mugatua izango da.



ANTOLATZAILEA: AEDko "EKK" Emakume taldea

Elexperen bidea

Urriaren 11, 12 eta 13an Zaldibarren

Ez dezazula pentsa Zaldibar hori denok ezagutzen duguna denik. Zaldibar herria Bizkaian dago eta ez ditza-
gun bazterrak nahas-mahas.

Informazio hau Zaldibartik etorri zaigu eta mendi bizikletaz egiteko bidea denez, hona hemen honi buruzko hainbat xehetasun.

Elexpeko ibilbidea Euskadiko mendietatik zehar bizikletaz egin daitekeen abentura da. Bide horri ekiteko asmo eta gogorik izanez gero, zoaz Zaldibarrera, Berriz ondoan, urriaren 11an, arratsaldeko 3etarako.

Ibilbide hau ez dago markaturik; ibilbidea ez omen da gogorra. Gainera,



jatorduetako lekuetan lagun bat izan dezakezu zain kotxeaz eta akanpalekuraino bidea laburtu.

Hobe taldean joanez gero, elkarri laguntzeko. Janaria, kanpina, zakua eta gainekoak bizikletan eroan daitetzeke, baina hobe lagun batek kotxez eroanez gero.

Ibilbide honetan ez dago araurik, ez antolaketarik, ezta ardurarik ere. Bakoitzak ikusiko du zelan konpondu arazoa.

Lehen etapa: Zaldibar-Elosua (Gorla ondoan), 41 km.

Bigarren etapa: Elosua-Aizarna, 60 km.

Hirugarren etapa: Aizarna-Zaldibar, 74 km.

Ibilbideari buruzko xehetasun guztien berri irteerari emango da. Badakizu, animo, eta abenturan sartu gura izanez gero, aukera bikaina izango duzu hurrengo asteburuan.

K. U.



IKASTOLAREN 25. URTEURRENA

D E I A

Ikastola sortu zenetik 25. urte betetzen direla eta, gure mende laurden honetako historia osatzeko lehenengo urteetako materialik **baduzu** (argazki, bideo, aldizkari, liburu, etab.) mesedez, jo guregana. (Tfnoak: 79 26 40 eta 79 61 04)

Eskerrik asko.

Aste gazte

"Gazteak mundurantz dihoaz, gloria-rantz; gu, berriz, etorreran gaude".

Montaigne

Euskal Dantza Ikastaroa

• Arrasateko 14 urtetik gorakoei zuzendua, honako dantza hauek ikasi edo hobetzeko: Mutil Dantza, Larrain Dantza, Arin-Arin eta Fandangoa. Hasiera: urriak 11 (ostirala). Ordutegia: 7etatik 8.30etara. Izenemateak: Gazteentzako Informazio-Bulegoan, lehen-bai-lehen, plaza mugatuak dira eta.

Bekak

• "Fundación Empresa Pública": Bekak eta espezializazio-praktikak. Eskatzaileak: ondoko ikasketak hauetan lizentziatuak (edo karrerako azken kurtsoko ikasleak): injinerutza, informatika, enpresa eta ekonomi zientziak. Dirula-



guntza: hileko 190.000 PTA lizentziatuentzat eta 75.000 ikasleentzat. Epea: urriak 12.

• *Ikasketa artistikoak EEBBetan sakontzeko bekak.* Eskatzaileak: ondoko gai hauetan titulazio akademikoa dutenak: zinea, literatur sorkuntza, dantza, eskultura, argazkigintza, musika, pintura eta antzerkia. Iraupena: 12 hilabete. Dirulaguntza: hileko 2.000 \$, joan-etorriko bidaia, matrikula-gastuak eta aseguruak. Epea: abenduak 13 (BOE 91-09-12).

Team'91

• "Team'91" abenduaren 3tik 5era Milanen egingo den erakustazoka da, non 500 ikaslek dohainik parte hartu ahal izango duten. "Team" ikasle-elkarte batek antolatzen du. Baldintzak: lizentziatu berria edo karrerako azkenengo kurtsokoa izatea eta atzerriko hizkuntza bat menperatzea. Azoka honetan

50 enpresa multinazionalak parte hartuko dute, ikasleei lan-elkarrizketak egingo zaizkielarik. Interesatuak eskaera-inprimakia bete eta bidali behar dute.

Lehiaketak

• "Nervi6n" VI *Poesia-Lehiaketa.* Bilboko "El Sitio" Elkarteak antolatuta. Gai librea. Lanek, gutxienez, 500 lerrotakoak izan behar dute. Sari bakarra: 300.000 PTA eta lanaren argitalpena. Lanak aurkezteko epea: urriak 16.

• "Indalezio Ojanguren" IV. *Argazki-Lehiaketa.* Gai librea. Zuri-beltz nahiz koloretan. Sariak: ohorezkoa: 75.000 PTA eta trofeoa; modalitate bakoitzeko 3 sari: 40.000 eta trofeoa, 25.000 eta 15.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: urriak 25.

• *Eibarko Hiria Gazteen VII. Ipuin Lehiaketa Euskaraz eta Erdaraz.* 25 urtetik

beherako gazteei zuzendua. Bi maila: a) 14-17 urte eta b) 18-25. Gai librea. Lanek 7 eta 10 orrialde bitartekoak izan behar dute. Sariak: 1. maila: 25.000, 20.000 eta 15.000 PTA. 2. maila: 40.000, 30.000 eta 20.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: azaroak 29.

Erakusketa

• Eibarko Udalak, "Bizikleta" gaiaren inguruan antolatu duen erakusketan parte har dezazun dei egiten dizu. Aurkez daitezkeen lanak: marrazkiak, pinturak, argazkiak, grabatuak, monotipoak, exlibris, kaxak... Lanak jasotzeko epea: azaroak 15.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

ASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55

ETXEBIZITZAK

- Bi neska behar dira pisua osatzeko Bilbon, (Logela konpartitua). Pisua handia eta polita da. Pertsona bakoitzak 15.000 PTA. Tfnoak: 79 24 08 Eva, eta 79 36 54 Maitane.
- Konpartitutako pisu alokatuan logelarik libre badaukazu, dei egin 77 06 90 tfnora.
- Bergarako bi neskek pisua osatu nahi dute Irunean. Tfnoa: 76 11 11.
- Ikasle pisua aurkitu nahi nuke Donostian. Tfnoa: 79 99 82 (Goizez). Miren.
- Bi ikasle pisu bila dabilta Donostian. Dei egin 79 53 82 tfnoa.ra bazkalordu edo afalorduetan.
- Ergulinen etxebizitza salgai. Amueblatua, gas naturala, 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrekoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.
- Bi ikasle behar dira Donostian pisua osatzeko. Dei egin 79 55 23 (Santi) edo 74 13 07 (Jon).
- Etxebizitza alokatuko nuke Aretxabaletan aia Eskoriatzan. Tfnoa: 79 59 60. Josu.
- Zarugalde 3an garaje-plaza alokatzen da. Tfnoa: 79 12 35.
- Bilbon ikasle pisua osatu nahi nuke. Tfnoa: 79 24 51. Nerea.
- Hiru langile gara Arrasaten alokatzeko pisu baten bila. Tfnoa: 79 51 49.

- gatzelania eta inglesa. Tfnoa: 77 04 98.
- Itzulpen eta Interpretari lanetarako kolaboratzaileak behar dira. Edozein hizkuntza. Tfnoa: 77 04 98.
- Emakumea etxeetan lan egiteko prest. Tfnoa: 79 84 66.
- Alemanezko klase partikularrak ematen ditut. Tfnoa: 79 78 75.
- Itzul eta Sor saileko liburuak salgai. Merke eta berriak. 9-13 urte bitarteko aurrentzat. Tfnoa: 79 80 91. Ander.
- Lanak maklnaz pasatzen dira. Tfnoa: 79 78 75.
- Neska euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: 79 58 80.
- Ingeleseko klase partikularrak ematen dira. Talde murriztuak. Dei egin arratsaldez 77 05 77 tfnora.
- Emakumea edozein lan egiteko prest: gaixoak zaindu, garbiketak, umeak zaindu, etxeko lanak egin... Tfnoa: 77 07 12.
- Emakume euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tfnoa: 79 91 30.
- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnora.
- Bestaldeko irakasle batek frantseseko klase partikularrak ematen ditu. Dei egin bazkalorduetan 79 20 24 tfno.ra.

- Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, estra batzuk ere baditu. 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- Paseoko bizideta bi salgai ditut 15.000 PTA.tan bakoitza. Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- Ur-berogailua egoera onean salgai. Tfnoa: 79 59 72.
- Adria TY GRA karabana (4,10 m.) salgai. Lau pertsonarentzako tokia, hozkailua etab. Garajea edukitakoa. Tfnoa: 79 93 06.
- la berria den Atari 2600 kontsola bideoa salgai, 160 joko ditu. Tfnoa: 78 31 51.
- Amstrad Spectrum MSX eta PC-ko jokoak salgai. Cassete-ko jokoan prezioa: 1-150, 2-200, 3-225 eta hortik aurrera 25 PTA gehiago joko bakoita. PC-ko jokuen prezioa galdetu (Oso prezio interesgarriak). Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- Egoera onean dagoen R5 GTLa salgai, ITVa pasatuta, SS-G (Merke). Tfnoa: 79 37 40.
- Hiru logela oso egoera onean salgai. Prezio onean. Tfnoa: 77 04 98.
- Ordenadore pertsonala salgai. Eredua: Amstrad CPC 6128 diskete unitatekoa (Basic-endako berezia). Oparia: telebista bihurtzailearekin, jokuak eta bihurtzailerak elkartutako iratzargailua. Dei egi 79 13 77 tfnora.

LANA

- Armoniako klaseak ematen dira. 1. 2. 3. eta 4. kurtsoak. Talde txikiak 91-92 ikasturtea. Tfnoa: 79 27 88. Miriam.
- Emakumea behar da umea zaindu eta lanak egiteko. Tfnoa: 79 13 04 eta 78 23 93.
- Klase partikularrak ematen dira: euskara,

SALEROSKETAK

- Izozkitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean. Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 Tfnoetara. Rosi.
- Lau edo bost lagunentzako kanplng-denda salgai, aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.

DENETARIK

- Zorionak Kris, Arantxi, Felix eta Iñaki! Zer moduz sentitzen zarete gurasoak izanda? Zuetaz pentsatzen dut maitekiro. Sharryn. N.Y.
- 25 urtetako neska batek saloiko dantzen hastape- ikastaroan parte hartzeko mutil bat behar du. Tfnoa: 77 01 93.



ARRASATEN HILDAKOAK



Gonzalo Romero,
irailaren 17an.

Faustino Andrés Gonzalez,
irailaren 25ean. 83 urte.

Dolores LLano Nieto,
irailaren 26an. 82 urte.

Eugenia Berezibar Balanzategi,
irailaren 28an. 89 urte.

Jose Luis Zubiaga Ortiz de Anda,
irailaren 30ean. 62 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE


Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Teodoro Iñurrieta

Hegazka tabernakoa

- Tabernan, egunez ala gauez? Egunez.
- Maalako Errebala ala Kosta Fleming? Lehen Maalako Errebala, baina orain Kosta Fleming
- Mostradore aurrean ala atzean? Mostradore atzean. Lanean nahiago dut.
- Ezkondu, elizaz ala zibilez? Elizaz.
- Autobidea, A4 ala A2? A4.
- Guardia zibila ala ertzaina? Ez bata eta ez bestea, baina bat aukeratu behar izanez gero nahiago dut ertzaina.
- Automobilean, bakarrik ala autoestopista batekin? Bakarrik.
- Euskaraz ala erderaz? Euskaraz.
- Portaloian ala Kontxan? Portaloian.
- Hola ala Interviú? Interviú.
- "Bailando con lobos" ala "El último tango en París" "Bailando con lobos".
- Independentzia ala erregionalismoa? Independentzia.
- Dirua gastatu ala aurreratu? Gastatu.
- Soldadutza ala intsumisioa? Intsumisioa.
- Kroatak ala Serbioak? Ez dakit, ez dut ulertzen.
- Semea ala alaba? Semea.
- Lotoa ala kiniela? Kiniela.
- Politika ala kirola? Kirola.
- Emakume ezkonduak ala ezkongabeak? Segun zertarako.
- Errealia ala Athletik? Athletik.




Bertsotan

Kilometroak 91-Bergara

Egun honetan bilduko dira hainbat ta hainbat euskaldun Euskara dugu gai nagusia guztiontzako ezagun. Egun batean pausoz ematen nahiz ta guztiok dakigun eguneroko bizitzan ahoz berdina egin dezagun.

Egun benetan zoragarria bota ezazu hegara eta gainera bide batetan bultzatzen dugu Euskara eguna ongi pasatu baietz gainera zure erara animatu ta etorri zaitez zure zain gelditzen gara.

AINHOA AGIRREAZALDEGI



ITURRIOTZ taberna

GIRORIK
JATORRENA !!

Tfnua: 79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



1944eko apirilaren 28an

A

rgazkikoak, Eskola Politekniko-
tik atera zen
lehen promo-
zioa osatzen
zutenak dira.
Zutik eta

ezkerretik eskumara: Lorenzo Jimenez, Luis Garmendia, Pako Arriaran (Arriaran IIIgarrena zena, pilotari handia), Manuel Zubizarreta, Sebastian Uribesalgo, Nicasio Garai, Martin Gaztañaga, Mariano


Barrena eta Maximo Uribesalgo. Aurrekoen eta atzekoen artean dagoen laukotekoak, Gualberto Gorosabel, Joseba Arregi, Gregorio Uranga eta Teodoro Zubizarreta dira. Aurrekaldean, berriz: Benito Barandiaran, Domingo Agirreurreta, Juan Egidazu, Angel Garitano, Alejandro Arauzo eta Luis Larreategi.

Argazkia 1944garreneko San Prudentzio egunean atera zuten, apirilaren 28an, hain zuzen. Argazkian daudenen maisua On Prudentzio Osinaga zen, argazkilaria kasu

honetan. San Prudentzio bere patroia zenez, egun horretarako ikasleekin mendi-ibilaldia antolatu zuen. Otartekoak eta zahatoa hartuta, hemeretzi lagunek irakaslearekin egunpasa ederra egin zuten Goimendin, Kanpazar inguruan.

Batzuek besteek baino lehenago, baina hemeretzi lagunek Eskola Politeknikoko ikasketak burutzea lortu zuten. Pako Arriaran eta Martin Gaztañaga hil ziren, baina gainontze-koak urtero biltzen dira.

**PUB
HAIZEA**



ENARA 
OSAGIRRIAK


Maalako Errabala . 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



6 IGANDEA

9.15etan, **Erreportaia**. Maritxu Kajoi jaiaren inguruan prestatutako lana izango duzue ikusgai.

9.30etan, **Mondragol**. Mondra-Santutxu partiduaren ordu erdiko laburpena.



7 ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albiste-emanaldia.

9.15etan, **Mondra Sport**. Arrasateko Kirol-munduaren errepasua.

8 ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunean zehar jasotako berriak.

9.15. **Erreportalak**. Aste honetan, Maritxu Kajoi eta Kilometroak 91 izango ditugu aztergai.



9 ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. ATBren albistegia.

9.15etan, **Alkatearekin Berbetan**. Jon Sarasuak moderatutako saioan, hiru kazetarik herriko aktualitateari buruzko galderak lizatuko dizkiote Xabier Zubizarretari.



10 OSTEGUNA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Albistegia.

11 OSTIRALA

8, 8.30 eta 9etan, **Berriak**. Egunean zehar bidutako albiste-bilduma.


9.15etan, **Erretratoa**. J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Eugenio Otxoa, Gatzagako Alkatea.



Salterain


Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79-24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE



Asteazkenean, Alkatearekin Berbetan

Datorren asteazkenean, 9.15etan ATBko estudioan izango dugu Xabier Zubizarreta, **Alkatearekin Berbetan** saioan aktualitateko gaiei buruz hitzegiteko asmoz. Gaur egun Arrasateko Udalean egoera berezia dago, eta Jon Sarasuak moderatutako saioan pil-pilean dauden gaiei buruz galdetzeko aukera aparta izango duzu.

Telebegi

Chamberyn gehien kolpatu nauena Berlingo telebista irekia izan da. Espresio eskubidea gauzatu ahal izateko, agintek dirua ematen du Alemania osoan 15 telebista ireki mantentzeko. Edonork dauka eskubidea bertaratu eta nahi duen saioa egiteko. Laguntza besterik ez du jasoko. Trabarik ez. Eta saioa, berak egin bezala emango da, inongo oztoporik gabe, aukeratzeko duen egun eta orduan.

"Geure artean ez litza-teke hori posible izango" aipatu nion OK kanaleko zuzendaria den Jurgeni. "Agintean dagoenak nekez emango du dirua gustoko ez duen zerbait sostengatzeko" erantsi nuen. Eta berak: "Bai, horrela izan ohi da, baina pertsonen eskubideak ez dira bakarrik Konstituzioetan agertzeko. Eskubideak erabili egin behar dira, horretarako bitartekoak jarritz. Eta ez nuke esango aginteari berari komeni ez zaionik, espresio librearen tentsioak baretzeko modu bat bait da" bukatu zuen Jurgenek, irribarre maltzurrez.

Pentsakor geratu nintzen eta pentsakor jarraitzen dut.

MIKEL IRIZAR

Telebelarri

◆ Independentziako asuntua horretan kontua ez da aldarrikapena egin eta kito! Bide horretan lan egin eta sakondu beharra dago, mamira heldu nahi badugu behintzat".

Aitor Antxiak, **Berriak** saioan.

◆ Gatxa izango da Euskal Herriaren Independentzia lortzea, baina salatu egin behar dugu. Gure borondatea eta lana eskaintzan badlogu aurrera aterako dugu".

Aitor Antxiak, **Berriak** saioan.

Maritxu igandean; Kilometroak asteartean

Datorren igandean, 9.15etan, **Mondragoi** saioari ekin aurretik, **Maritxu Kajoi** egunari buruz prestatutako lana izango duzue ikusgai. Norbaitzuentzat lehenbailehen ahazteko modukoak izango diren aurpegi eta egoerak eskainiko dizkizuegu.

Asteartean, berriz, 9.15etan hasitako **Erreportaiak** saioan, **Maritxu Kajoi** jaia eta igandean Bergaran antolatuko den **Kilometroak 91** izango ditugu aztergai.

Aukera ederra ATB!





ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Han-hemenka ibiltzea eskatuko dizun arazoren bat konpondu beharrean izango zara. Tirabirak ebitatu, haserreak barra-barra izango bait dira bestela ere. Har ezazu egonarriz.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Finantz arloa izango da menderatuko duzuna. Merezitako etekinen bat izango duzu eta aurrerantzerako inbertsioen bat eginez gero bete-betean asmatuko. Ezusteko bisita.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era


Eginbeharrak beteko du egunaren zati handiena. Atsedenerako denbora aurkitzea behar-beharrezkoa izango duzu. Horrela egin ezean osasunak kale egitea suerta liteke.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maltzaren 20ra

Baikor arituko zara alde guzietan. Maitasunean amets egin izan dituzun une gozoak bizi izango dituzu. Gustoko duzun bidaia edo gertaeraren bat egongo da tartean.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Etorkizunerako proiektuak egiteko egun aproposak dituzu datozenak. Zure ekonomian desorekaren bat suerta liteke epe motzera. Konponduko da baina... lagun onak izango dituzu inguruan.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Zure bizimoduan aldatetaren bat egin beharrean zaude rutinak jan egiten zaituelako. Ez egon perezaz hori baino eraginkorragoa bait zara. Finantzak kili-kolo daude.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Ipurtarin zaude. Eginbehar larregi daukazu eskuartean eta baliteke erdipurdizka uztea dena. Hartu ezazu patxadaz, urduritasuna eta egonezina ez bait dira adiskide onak.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ezustean harrapatuko zaituzte egoera askok. Har ezazu ahalik eta hobekien; gurpil zoroetan sartzea ebitatu behintzat. Lagunartean gustora ibiliko zara.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Ezusteko bidaiaren bat egitea suerta liteke; eduki ezazu motxila pronto. Aspaldian ikusi gabeko lagunaren batekin topo egitea suerta liteke; garai atseginak ekarriko dizkizu gogora.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Notizia onen bat jasoko duzu umorea alda eraziko dizuna. Lantoki edo eskolan erromantzeren bat bizi izatea suerta liteke. Armonian pasako duzu heltzeaz dagoen astea.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Lasai ibiltzea komeni zaizu, inguruak kontrakoa eskatuko badizu ere. Besteren arazoak konpondu beharrean izango zara. Erantzun egokiak emango dituzu edozein egoeraren aurrean.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Bizimodu sentimentala da benetan arduratzen zaituena. Ezkontzekotan bazina oraintxe duzu erabakia hartzeko une aproposa. Neska/mutil bila hasteko ere bai. Loreak udan bezala sentituko zara.


HIRU

UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**


Zaldispe kalea, 10 (95. postakutxa)
ARRASATE Telefaxa: 79 80 97
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Goian Industrialdea (24. postakutxa)
01170 LEGUTIO Telefaxa: 45 54 74
Tfnoak: (945) 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53



Etorkizunaren erronka

- Gertu dagoen erakundea dugu
- **kutxa**, garai berriei aurre egiteko.
- Teknika- eta giza baliabiderik
- eraginkorrenekin, gailentzeko.
- Beharrian berriei egokituriko maila
- bikaineko zerbitzuez, eraberritzeko.
- Alor guztietan aurrera egiteko.
- Etorkizun gero eta lehiakorrago
- baterantz.




kutxa

gipuzkoa
donostia kutxa
caja gipuzkoa
san sebastián

Kilometroak 91

Bergara



URRIAK 6

igo tipi-tapa
euskararen aldapa



kutxa

EUSKAL
TELEBISTA



EUSKADI
IRRATIA



Ikastolen Elkartea